



Herreratarrak gogoz daude jai giroan murgiltzeko. **HERRERAKO JAI BATZORDEA**

Luisita eta Luisito ate joka dituzte Herreran

Ekaina da, eta horrek gauza bakar bat esan nahi du Herreran: jaiak hastear direla. Hilaren 21eko San Luis egunaren bueltan antolatzen dituzte festak, baina hiru asteburuz disfrutatuko dituzte aurten ere, auzoa horrenbeste alaitzen duen jai giroa ahalik eta gehien luzatzeko.

Beñat Parra Rodriguez

Bi aste barru da San Luis eguna (hilak 21), Herrerako jaietako egun handia, baina gaur bertan hasiko dira motorrak berotzen, kirol asteburua baitute aurretik: Mozkor Frenetkideok pilotazale taldearen jaietako pala kopako eta ligako finalak jokatuko dituzte gaur eta bihar, besteak beste. Kirola egin ostean, Larratxora joango dira, asteburu honetan baitira ondoko auzoko jaiak: «Beti bat egiten dute gure kirol asteburuak eta Larratxoko jaiak, eta hara bideratzen ditugu herreratarrek bazkalostean, noski!», nabarmendu du Ane Lazkano jai batzordeko kideak.

Jaiak hiru asteburuz luzatzeko arrazoia galdetuta, argi dauka Lazkanok: «Kostatzen da egunerokotasunean auzo bizitza sustatzea, eta horregatik antolatzen ditugu urtean zehar ere

zenbait jarduera, jendea kalera ateratzera animatzeko. Auzo txikia da gurea, bistaz behintzat elkar ezagutzen dugu eta horrela izaten jarraitu nahi dugu; jaiak horretarako tresna nagusia dira guretzat. Egun horietan, auzo bizirik ikusten da, euskaraz egiten ditugun jaiak dira gainera... horregatik luzatzen ditugu jaiak, hein handi batean». Hala ere, aitortu du antolatzea «lan handia» dela eta, horregatik, auzotarrak animatu ditu «parte hartzera eta laguntzera».

Kontzertu handiak eta askoz gehiago

Ohiko egitura mantendu dute Herrerako jaietako egitarauan: kirol asteburua lehenik, kontzertu handien ostirala hurrengo astean —aurten, Asgarth, Boikot eta Herenegun—, Haurren Eguna larunbatean —tartean paella lehiaketa eta

Elektro Buiaka herreratarren emanaldi arrakastatsuak—, Euskal Jaia igandean, bere Boilur Azokarekin eta Marianito Festarekin —iluntzean, erromeria gidatua edo saltsa gaua, animoen arabera—; eta, astean zehar zenbait entsegu egin eta atsedenerako tartea hartu ostean, hirugarren eta azken asteburua: Futbolin Txapelketa ostegunean Nido tabernan, Herrerako Harria apustua ostiralean —500 kiloko harria frontoiko aldapan gora igotzen lehiatuko dira bost talde—, San Luis eguneko haur eta helduentzako askotariko jarduerak larunbatean eta San Joan bezperako ospakizunak astelehenean.

Lazkanok nabarmendu duenez, jaiak asteko irrikaz daude auzoan: «Ekainak jaien hasiera esan nahi du Herreran, auzotar guztion egutegietan markatuta dauden asteburuak dira». Herreratarren egutegietan ez ezik, donostiar askoren egutegietan ere markatuta daude jaietako egun jakin batzuk, bereziki, kontzertu handien asteburua, eta horrekin oso pozik agertu da jai batzordekoa: «Guretzat, oso pozgarria da hori, ez baita erraza jendea Herrerara etortzea lortzea. Aurten, Fermin Muguruzaren Anoetako kontzertuarekin bat egiten du asteburu horrek, baina bi planak bateragarriak dira eta Anoetara ez doazenentzat, aspertzeko astirik ez da izango auzoan!». ●

EGITARAUA

OSTIRALA 6

19:00+20:00

Mozkor Frentekideok pala txapelketako kopako finalak: 19:00etan emakumeak (XI.ez) eta 20:00etan gizonak (XXXVIII.ez).

LARUNBATA 7

10:00+11:05

Mozkor Frentekideok pala txapelketaren ligako finalak: 10:00etan emakumeak (XI.ez) eta 11:05ean gizonak (XXXVIII.ez).

11:00

Hamaiketakoa, Pasaia txistulariekin, Xixurkil trikitilariekin eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

12:00

Angelusa, Pasaia txistulari eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

12:30

Sari banaketa.

13:00

Kalejira.

14:00

Bazkaria..

16:00

Xixurkil trikitilarien showa.

20:00

Denok Larratxora, berreskura dezagun!

20:30

Sardina jate herrikoia, Zumardi pasealekuko plazan.

IGANDEA 8

08:30

Mendi irteera Herrerako plazatik!

ASTEAZKENA 11

19:00

Burger-potea, Bizargorri tabernan.



19:30

Haur eta helduen danborrada entsegua, Euskal Giroan.

21:00

Perdón x molestar bakarrizketa Bizargorri.

OSTEGUNA 12

17:00

Haurrentzako zinema Herrera K.E.-n.

19:00

Txupinazo elegantea, Kilikariak txarangarekin.

19:10

XII. pintxo-pote elegantea, Kilikariak txarangarekin.

21:00

Etxera? Eleganteon txozna zabalik dagoela!

OSTIRALA 13

17:00

Haur eta gazteentzako jolasak, Altzako haur-txokoaren eta gaztekuaren eskutik, Euskal Giroa aurrean.

17:30

Ikastetik edo lanetik jaietara! Herrera goitik behera gozatuz. Aupa gazte!

19:30

Trebera taldearen *Mocedades oroitz* kontzertua, Herrerako Parrokian.

21:00

Gaua luzea dela, denok afaltzera, trikiaren kalejirak auzoa alaituko digu!

22:00

Kontzertuak: Asgarth, Boikot eta Herenegun.

03:00

Rider DJ-a txosna gunean.

LARUNBATA 14

09:00

Diana, Donostiako txistulariekin.

11:30

Umeentzako puzgarriak plazan.

12:00

XI. Paella Lehiaketa.

12:30

Kale animazioa Herrera behetik gora alaituz!

14:00

Herri bazkaria: paella jana.

16:00

Umeentzako puzgarriak plazan.

17:30

Gazteentzako eta ez hain gazteentzako Joko Olinpikoak. Saria Bizargorri tabernaren eskutik.

17:30

Haur txupinazoa.

17:45

2025ko Marrazki Lehiaketaren sari banaketa.

18:00

Txulalai taldearen *Mugitu zaitez!* emanaldia.

19:30

Buruhandi eta erraldoien irteera, Herrerako txistulariak eta Alano alboka taldearekin.

20:30

Kirolari olinpikoentzako afaria, plazan.

21:00

Sardina jatea plazan trikitilariekin eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

22:00

Elektro Buiaka elektrotxarangarekin gaua berotzeari ekin.

00:00

Musika festa Gabezin erromeria taldearekin.

02:00

Mozkor jokoak.

IGANDEA 15

Euskal jaia

09:00

Diana, Herrerako txistulariekin.

11:00

X. boilur azoka. Nafarroa, Araba, Errioxa, Huesca, Soria, eta beste leku batzuetatik etorritako boilur biltzaileen erakusketa.

11:00

Euskal jaia eta artisau azoka: Altzako baserritarrak, zeramika, bitxiak, taloak, buruhandiak, jostailuak, motxilak,...

11:00

Herri Ametsaren eskutik, Dantzari Txiki Eguna.

11:30

Uretako jolasak eta puzgarriak.

12:00

Marianito Fest. Zatoz txosnara jaietako bermuta hartzera.

12:30

Kantujira. Herrera Kantuz abesbatza herrikoiarekin eta Herrerako Musika eskolako trikitilariekin.

13:00

Apar festa, Euskal Giroa aurrean.

14:00

Herri kantu barrikotea, De Miguel txistularia, trikitilari eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

16:00

Uretako jolasak eta puzgarriak.

17:30

Herri kirolak.

19:00

Auzoko trikitia, Herrerako txistulari eta dultzaineroekin.

19:15

Erromeria gidatua edota saltsa gaua.

ASTELEHENA 16

19:30

San Joan suaren dantza entsegua, Auzotegian.

ASTEARTEA 17

18:30

Yoga saioa Arun Ile apaindegia eskutik (topaketa Auzotegian).

19:30

Haur eta helduen danborrada entsegua Euskal Giroan.

ASTEAZKENA 18

19:30

San Joan suaren dantza entsegua, Auzotegian.

OSTEGUNA 19

18:00

VII Futbolin Txapelketa Nido tabernan: 18:00etan haurrak eta 19:00etan helduak (izen ematea Nido tabernan).

21:00

Endika Delaia bakarlariaren kontzertua Bizargorri tabernan.



ZUMARDI
taberna



GORA HERRERAKO JAIK!

ZUMARDI PASEALEKUA 22, HERRERA - Tel. 943-39 37 75

